

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua enpresaren hitzarmen kolektiboko artikuluen aldaketaren akordioa

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da, Arabako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua enpresaren hitzarmen kolektiboko artikuluen aldaketa akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01002535011998.

AURREKARIAK

2019ko otsailaren 14an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen AESAD eta langileen ordezkariak, ELA, LAB, UGT eta CCOO, 2019ko urtarrilaren 30ko negoziazio-mahaian sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a

Arabako lurralde ordezkaria
CARMEN DE CELIS CUEVAS

**Arabako etxeko laguntza-zerbitzuaren hitzarmen kolektiboaren
negoiazio-mahaiaren bileraren akta**

Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 30ean, 10:00etan, Lan Harremanen Kontseiluak (PRECO) Araban duen lurralde-egoitzan, alde batetik, Etxeko Laguntza-zerbitzuak egiten dituzten enpresen Enpresa-Elkartearen (AESAD) ordezkariak eta, bestetik, ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuen ordezkariak bildu dira, Araban etxeko laguntza-zerbitzua ematen duten enpresen sektorearen hitzarmen kolektiboaren testuan dagoen hutsegite bat zuzentzeko asmoz, organismoko bateratzaile-bitartekariaren laguntzarekin.

Arabian etxeko laguntza-zerbitzua ematen duten enpresen sektorearen hitzarmen kolektiboa argitaratu ondoren, 2009rako lan-antolaketari buruzko 7-B aurreko artikulua osorik ezabatu dela egiaztatu dute hitzarmena negoziatu duten aldeek. Bada, artikuluan jasotzen zen testuari eutsi behar zaio, eta, horri begira, gaur egungo hitzarmen kolektiboaren B.1.4. puntua testu honekin ordezkatzera erabaki dute:

“Esleipen berriaren aurretiko azken bi hilabeteetan, ez da ezarritako bermea aplikatuko. Lekualdatzen ez diren eta egoera horretan dauden langileek hurrengo hileko nominan jasoko dute jaso ez duten aldea.

Astean 35 orduetik beherako lanaldia egiten duen langileren batek justifikatu gabeko edozein arrazoi tarteko enpresak agindutako zerbitzuren bat egiteari uko egiten badio, soldata-bermerako eskubidea galduko du, eta oro har ezartzen denaren zain geratuko da. Enpresak enpresa-batzordeari edo langileen ordezkariari emango die eragindako langilearen ukoaren eta lanaldi-murrizketaren berri.

Era berean, langile batek astean 35 ordu baino gutxiago dauzkanean eta bere ordutegiarekin bateragarria den zerbitzu berri bat sortzen denean, enpresak horri esleitu beharko dio zerbitzua, kontratazio berrien nahiz soldata-bermera atxikita ez dauden langileen gaineko erabateko lehentasunarekin.

Hala ere, bermea ez zaie aplikatuko Langileen Estatutuaren 15.1.c) artikulua babespean egindako bitartekotasun-kontratuak dauzkaten langileei, ez eta aldi baterako ezintasun-aldien-gatik, oporregatik edo amatasunagatik langileek arauz ezarrita dauzkaten atsedena estaltzeko egiten diren kontratuak edo asteburuetarako kontratu espezifikoak dauzkaten langileei ere, edota eguneko arretarako landa-zentroetara, pisu babestuetara, tutoretzapeko apartamentuetara, etxebizitza komunitarioetara eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (SAD) esleipen instituzionalik ez duten enpresetara atxikitako langileei; betiere, langileak horrelako zentroetan bakarrik egiten badu lan eta enpresak kategoria bereko bestelako zerbitzurik ez badauka eremu geografiko berean.”

Halaber, alde guztiek erabaki dute beste paragrafo bat sartzea B.2. puntuan, eta honela geratu da idatzita:

“B.2. Esku-hartze soziohezitzaileko zerbitzuaren langile familiarrak.

Esku-hartze soziohezitzaileko zerbitzuko langileen soldata-bermea. Esku-hartze soziohezitzaileko zerbitzuak egiten dituzten eta soldata-bermera atxikita dauden langileei dagokienez, langile batek ematen dituen zerbitzu soziohezitzaileekin eta haren ordutegiarekin bat egiten duen zerbitzu hezitzaile bat jasotzen badu enpresak, langile horri esleituko zaio zerbitzu berri hori, eta horrelaxe jarraituko da egiten, lanaldi osoa bete arte. Dena dela, bateragarriak ez badira edo zerbitzu berria onartuta lanaldi osoa gainditzen bada, etxeko laguntza-zerbitzuarekin jarraitu edo esku-hartze soziohezitzaileko zerbitzuan hasi hautatu ahalko du, lehentasunez.

Profesionalen prestakuntza-espezifikotasuna eta zerbitzuaren arreta-ordutegiak direla-eta, egoki ikusi da kolektibo horrentzat berariazko erregulazioa egitea. Xede horietarako, bitariko batzorde paritarioari arlo horretako proposamen bat egingo dion lan-batzordea eratuko da.

Bitariko batzorde paritarioak onartu egingo du, edo, bestela, aldatu, proposamena onartzeko egokitzat jotzen duen horretan.”

Alde guztiek adierazi dute ados daudela Arabako etxeko laguntza-zerbitzua ematen duten enpresen sektorearen hitzarmen kolektibo berriari gaineratuko den testuarekin. Alabaina, berriaz jasotzen da LAB sindikatuko ordezkariak aldaketa sinatu duela hitzarmen kolektiboa ez sinatzeko jarrerari eusten dion arren.

Lantzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilera amaitutzat eman da 11:00etan, eta, ados daudela erakusteko, akta hau sinatu dute bertaratuek.